



Covid-19-ak pertsona guztiei kalte egiten die.

“Migrazioak” egitasmoaren gizarte proiektuaren ibilbidean lagun asko egin ditugu. Gaurko egoera berezi honetan oso interesgarria iruditu zaigu hauetako hainbati, berau nola bizi duten galdetzea, bai gure artean, bai beraien jatorrizko herrialdeetan ere. Horregatik leiho birtual hau irekitzea erabaki dugu, non, aldizka, gurekin “Migrazioak” proiektua osatu duten hainbat lagunekin izandako solasaldiak argitaratzen joango garen.

- **Khadija Belahssoud**



Oraingoan Khadijaren gana hurbildu gara. Marokoa izatez, Casablancan jaioa, baina 2000tik gure artean duguna. Zumalakarregi Museoarekin elkarlanean aritu da "Migrazioak" proiektuko hainbat jardueratan. Maiatzaren 14ean Lurdes Azpiazukin izandako solasaldia. Konfinamenduaren bederatzigarren astean.

Solasaldiaren itzulpena

Lurdes: Arratsalde on Khadija, zer moduz zaude?

Khadija: Ondo, eta zu?

Lurdes: Ondo, ondo, eskerrik asko. Lan eguna bukatu al duzue?

Khadija: Bai bukatuta, orain etxean lasai nago

Lurdes: Honezkero etxean zaude lasai, hau da, ez diozu lan egiteari utzi.

Khadija: Ez, ez, ez. Ez diot lan egiteari utzi. Konfinamendu bitartean aritu naiz lanean.

Lurdes: Konfinamendu guztia?

Khadija: Bai

Lurdes: Artisau okindegi batean egiten duzu lan?

Khadija: Bai, eta emakume adindu bat zaintzen ere bai.

Lurdes: Ah, baita? Eta nola eraman dute zure familia, zure senarra eta zure alabak konfinamendua?

Khadija: Nahiko ondo, ondo, ahal den neurrian.

Lurdes: Zure alabek etxean ikasiko dutela suposatzen dut

Khadija: Bai, bai, bai, etxean ikasten ari dira eta irakasleek bidalitako etxekolanak egiten.

Lurdes: Ondo egokitu dira?

Khadija: Bai, ondo, ondo. Eskerrak zuntz optikoa daukagula

Lurdes: Eta zure Marruekoeko familia? Ere ondo? Ondo bizitzen ari dira egoera hau?

Khadija: Nahiko ondo, nere ama ezin da etxetik atera arrisku pertsona delako. Nire ahizpa bai ateratzen da, beharrezko gauzak egitera. Besterik ez.

Lurdes: Azken finean denok egokitzen ari gara, ezta?

Khadija: Bai, bai, bai.

Lurdes: Eta zer diferentzia ikusten duzu edo ikusi duzu hemen dagoen egoera eta Marruecosen dagoenaren artean? Zure familiak kontatuko dizu nola ari den bizitzen.

Khadija: Egia esan han hartzen ari diren neurriak hemengoak bezalakoak dira, neurri berdinak dira. Gobernuak ordutegi bat ezarri du pertsonak etxetik atera ahal izateko beharrezko gauzak egitera. Salaketa jartzea posible dute eta maskarilla janztea derrigorrezkoa da. Maskarillarik gabe harrapatuz gero salaketa jartzen dute edo kartzelan sartzen zaituzte.

Lurdes: Horiek bai direla neurriak, hemen maskarilla eraman edo ez eramatea adosten ari dira oraindik. Badirudi espazio itxietan derrigorrezkoa dela baina espazio irekietan janztea edo ez zalantza dago. Hori nik entzun dudana gaur maiatzaren 14ean. Nola ikusten duzu etorkizuna?

Khadija: Etorkizuna? Ez dakit zer esan behar dudan, egia esan. Egoera hau ondo bideratuko dutela geure onerako. Fidatzen naiz.

Lurdes: Bueno, hori da espero duguna, ezta? Bitartean arauak bete beharko ditugu egoera gaitzetzeko.

Khadija: Egia esan guk ez daukagu ordutegirik.

Lurdes: Zu Ormaiztegin bizi zara eta hemen 5.000 biztanle baino gutxiago daude. Lana egiteko ez duzu ezta arazorik izan.

Khadija: Ez, ez, arazorik ez, arazorik ez.

Lurdes: Lehen baino lan gehiago eduki al duzue? Desberdintasunak nabaritu al dituzue?

Khadija: Bai, okindegian lan asko eduki dugu egia esan. Jendeak ogi gehiago eskatzen zuen. Oraindik lan askorekin gabiltza.

Lurdes: Zure lana elikagaien sektorean izanda lanarekin jarraituko duzu dudarik gabe.

Khadija: Bai bai bai bai.

Lurdes: Ea laister elkar ikusten garen

Khadija: Ea elkartzen garen eta bizitza normalera itzultzen garen.

Lurdes: Normaltasun berri bat izango dela suposatzen dut, hori esaten dute ezta? Dena desberdina izango da.

Khadija: Desberdina bai baina pixkanaka.

Lurdes: Pixkanaka, hori da. Zurekin hitz egiteak poztu nau. Besarkada bat.

Khadija: Baita zuri ere.